

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRIOLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Prozedura ireki (enkantea) bidez besterentzea Asparreneko udalerriko Arriola herrian dagoen eraikin (etxebizitza) bat

Arriolako Kontzejuak, 2017ko maiatzaren 12an hartutako erabakian, erabaki zuen prozedura ireki bidez besterentzea (enkantea) Arriolako herrian dagoen eraikin (etxebizitza) bat; eta kontzejuaren 2018ko maiatzaren 24ko erabakian, onestea ondoren zehazten diren baldintza ekonomiko eta administratiboen agiria:

1. Erakunde esleitzaila:

a) Erakundea: Erriolako Kontzejua.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzea:

– Arriolako Administrazio Batzarra.

– Helbidea: 01208 Arriola.

– Telefonoa: 696 465934 – 696 644346

– Posta elektronikoa: juntaarriola@hotmail.com.

– Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken egunera arte. Oharra: agiria Arriolako Kontzejuko iragarki taulan egongo da ikusgai.

c) Higieztina ikusteko egun eta ordua: Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunaren bezperara arte, adierazitako telefonoetan hitzordua hartu ondoren.

2. Kontratuaren xedea:

Xedearen azalpena: Prozedura ireki (enkantea) bidez besterentzea Asparreneko udalerriko Arriola herrian (1 poligonoa, 615 lurzatia) dagoen eraikin (etxebizitza) bat.

3. Izapidetzea eta prozedura:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia, enkantea.

c) Lizitazio oinarria: berrogeita sei mila laurehun eta hogeita hemezortzi euro eta bi zentimo, 46.438,02 euro, zergak eta gastuak sartu gabe.

d) Bermeak:

a) Behin-behineko bermea: ehuneko 3, alegia, 1.393,14 euro.

b) Behin betiko bermea: esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 5 (zergak aparte).

Gehiago eskainiz hobetu ahal izango da eskaintza.

4. Lizitatuzaileen betekizunak: ikusi agiria.

5. Eskaintzak aurkeztea:

a) Eskaintzak aurkezteko epea: 15 egun natural, lizitazio iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 09:00etatik 14:00etara. Azken egun hori larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliaduneko 14:00ak arte luzatuko da epea.

b) Eskaintzak aurkezteko lekua:

- Asparreneko Udala.
- Herriko Enparantza, 1, 01250 Araia, Araba.

c) Lizitatzailleak eskaintzari eutsi behar dion epea: salerosketaren eskritura publikoa egin arte.

6. Eskaintzak irekitzea:

a) Lekua: Arriolako Kontzejuaren aretoa, Arriolan.

b) Eguna eta ordua: ekitaldi publikoan, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo lehen igandeko 12:00etan.

7. Gastuak:

esleipendunak ordainduko ditu lizitazio honi dagozkion iragarkiak, bai eta higiezinaren eskualdaketaren ondorioz sortzen diren zerga oro eta hura formalizatzeko beharrezko gainerako gastuak (zergak, notario eta erregistro gastuak...) ere.

Arriola, 2018ko ekainaren 11

Lehendakaria

MARIA TERESA GONZALEZ DE HEREDIA